

# Euskal kulturaren panorama

joan mari torrealday

## Sarrera

Sarrera honetan, kulturaren arlora zuzenki sartu aurretik, oharka bederen ikus dezagun gure ingurunea.

## Egoera politiko administratiboa.

- Euskaldunaren kontzientzian Euskal Herri bat dago. Baina ongi taxutu eta mugatu gabea, ongi definitu gabea. Zeintzu dira Euskal Herriaren lurren mugak, zein da hiriburua, nola eratu behar da lurralde desberdinen artikulatzea edo okerrago dena: zeintzu dira euskal lurraldeak edo herrialdeak (Nafarroa)?
- Bidasoako mugaren presentzia. Muga horrek bi Estatutan banatzen du Euskal Herria.
- Orain artean, gerraoste osoan bederen, edozein instituzio, erakunde edo antolamenduk Euskal Herria zatikatzen jo du. Euskal Herria nahiz zatika hartua izan da nahiz ingurune handiago batetan integratua. Frogatzeko azter nola antolatu izan diren, epai-kontua, eliz-erakundeak, uren banaketa, telefonoa, irratia, telebista, etc. Euskal Unibertsitatearen zatikatzea ezagunago da. Dena holaxe. Hots, Euskal Herria bere horretan, soilki eta osotasunean, hartzen duenik ez da egon. Aginte autonomikoarekin, aurrerantzean desberdin izango al da!

## Egoera demografikoa

**Lurra.-** Lurraldez herri tikia da Euskal Herria: 20.551 km<sup>2</sup>. Horietatik 17.682 Estatu espainolean (Araba: 3.047 m<sup>2</sup>), Gipuzkoa (1997 m<sup>2</sup>), Nafarroa (10.421 m<sup>2</sup>), Bizkaia (2.217),

Nazio zapaldu edo minoriak bezala Europan kontsideratuak direnen artean, zein leku okupatzen du? Catalunya (61.637 m<sup>2</sup>), Eskozia (77.374 m<sup>2</sup>), Occitania (196.741 m<sup>2</sup>), Britainia (34.077 m<sup>2</sup>), Gales (26.761 m<sup>2</sup>), Sardinia (24.089 m<sup>2</sup>) baino tikiagoa da, baina Friül (7.484 m<sup>2</sup>), Frisia (13.030 m<sup>2</sup>), Kernow (3.562 m<sup>2</sup>) baino handiagoa.

**Jendea.-** 1975ean 2.783.270 biztanle zituen Euskal Herriak, parterik handiena (2.555.455) Hego aldean eta 227.815 Ipar Euskal Herrian.

Euskal Herriko jendetza, gaztea da. Hona datu batzu: Gizonezkoen batzbesteko adina 31 urte da (eta Espainian, 31,9); emakumezkoena 33 urte (eta Espainian 34,3). 25 urtetik beherakoek % 43,4 suposatzen dute jendeteria osoan, eta 65 urtetik gorakoek % 8,8 (Estatu espainolean datu hauek honela dira: % 42,8 lehenarentzat eta % 10,3 bigarrentzat).

1975 urte horretan, jendetza aktiboa honela banatzen zen: lehen sektorean % 10,7, bigarren sektorean % 52,8 eta hirugarrenean % 36,5. Bigarren sektorearen edo industriaren lehen lekua azpimarratu behar da. Azpimarratzekoa da, baita, lehen sektorearen gutitzearen abiada (1962an: % 20,8 eta 1975ean % 10,7. Eta % 76 kalkulatu da 1980rako). Jakina, datu hauek Hego aldekoak dira. Iparraldeak oso bestelako irudi bat ematen du. Iparralde honetan bi parte bereiztu behar dira: mendi aldea bata, eta bestea Kostaldea. Lehenean nekazaritza da nagusi, eta bestean zerbitzuak (Lapurdin, esaterako, % 56).

Euskal Herriaren hazkuntza demografikoa, ikaragarria izan da. Hogei eta bost urtetan (1950-1975) Hego Euskal Herriaren hazkuntza demografikoa % 77,1 izan da, biziki handia.

Hazkuntza honetan faktorerik garrantzizkoena, gure oraingo ikuspegitik, inmigrazioaren partea da. Berezko hazkuntza estimatua % 35,4 da. Beraz, inmigrazioari zor zaiona, ia ia % 42. Batez ere Bizkaian kokatu da, gainera, inmigrazio hori: hemen inmigrazioari zor zaion hazkuntza urte horietan % 60tik gorakoa da. Gaur egun Hego Euskal Herrian % 30en bat etorkinak dira. Biziki kontutan edukitzeko datua, edozein kultur-planketa egin nahi den orduan.

### Hizkuntzaren egoera

Bizpahiru datu gogoratu besterik ez. 4 literatur-euskalki ditugu, 8 euskalki mintzatuak eta 25 sub-euskalki. Horien ondoan, edo horien gaineratik, nahi den bezala, euskara batua dugu. Idatziaren mailan, gaurko gehiena eta eraginkorrena euskara batuz idazten da.

Hizkuntzaren demografikoaz hauxe besterik ez dut gogoratu: A.de Miguel-en xifretan, % 33k (miloi bat inguru) ulertzen du euskaraz, % 25ek (700.000 eskas) hitzegiten du, % 17k (510.000) irakurtzen du eta % 10ek (300.000) idatzi.

## Kultur erakunde eta mogimendu zenbait

### Sarrera

Aipatuko ditugun kultur erakunde eta mogimendu hauen jaiotza eta hazkuntza, dialektika gisako harremanen modura ulertu behar da. Hots, alde batetik euskara desagiteko ahalegina egon da, eta bestetik euskara salbatzeko lehia. Ofizialtasunak, Madrileko legediak, labur esanda, lehenaren alde jokatu du, eta herriak, bertoko indar abertzalerik bizienak bigarrenaren alde. Uste dudanez, ezin da erakunde hauen bizimoldea eta funtzionaketa ulertu, euskal kulturaren zampaketa bortitza kontutan hartzen ez bada. Erakunde horien goibea aztertu aurretik, on litzateke errepresio horren nondik norakoa ikustea. Ikerketa sakonagorik nahi duenak, beste norabaitera jo beharko du (1), hemen puntutxo zenbait gogora ekarri besterik ez bait dugu egingo.

Euskal kulturaren aurka gerraosteko jazarpenak ez du beti gogortasun bera izan. Aldirik gogorrena gerratik 1960 alderartekoa litzateke, eta aldi horren barruan 1936-1950 bitartea. 1960etik gerora tolerantzia progresibo batetan abiatzen gara.

Lerro gutitan bil-laburtuz esan genezake euskararen aurkako jazarpenak asmo garbi bat izan duela: euskal kulturaren eta hizkuntzaren likidazioa, gure herri-nortasuna desagitea. Horretara zuzendu dira Madrileko Gobernuaren lege administratiboak, hemengo Gobernu Militarren ordenuak. Euskara kaletik baztertu behar da, bizitza publikotik atera, eskolatik atera, elizetan sartzen utzi ez. Kultur-politika deuseztatzaile finkatu bat izan du frankismoak: euskararen hedadura soziala uka, esistitzen zuenik ere kontutan eduki gabe batzutan, dialekto bezala erabiliz zenbaitetan, desprestigiatuz beste batzutan, eta etengabe zigorkatuz han eta hemen. Bizitza publikotik euskara eliminatu nahi izan dela frogatzeko testuak ugari dira.

Goazen orain herriaren aldetik erresistentzia eta hizkuntzaren errekupeazioa nola antolatu gaingiroki ikustera.

(1) URRUTIA, J.: *Pasado y presente del Euskera en la legislación española* in : II Semana de Antropología Vasca, LGEV, Bilbao, 1973

TORREALDAY, J.M.: *Nazio kulturen zampaketa*: Euskadin gertatua, in: Común, Bilbao, 1979

Ikastola, Euskalduntzen-Alfabetatzen, Kanta Berria, UEU, UZEI, EKT / EKM ikusiko ditugu, eta astirik baldin badugu euskal liburugintzaren eta aldizkarien gorabeherak.

### Ikastola

Ikastolen mogimendua berandukoa da. Egia da gerra aurretik bazela ikastolarik. Baina ez zuten jarraipenik izan, gerraren erruz. Geroztik, 1950 hamarraldian, akademia partikular zenbait bazen. Eta lehenengo ikastola Gipuzkoan 1960ean sortzen da. Beranduago beste lurraldetan: 1963an Bizkaian eta Araban, 1965ean Nafarroan eta 1969an Ipar Euskal Herrian.

Egiazki harrigarri da, horren urte gutitan ikastolek egin duten gorakada. Eman ditzagun xifra batzu:

1975-1976 ikasurtean hau zen ikastolen kopurua:

Araba: 8

Ipar Euskal Herria: 18

Nafarroa: 23

Bizkaia: 45

Gipuzkoa: 78

Ikasleen kopurua ere gora eta gora doa, batez ere azken urte hauetan:

1960: 60

1969-70: 30.000

1975-1976: 35.000

1977-1978: 45.000

Eboluzio hau mila traba, oztopo eta eragozpen gaituz aurrera eramana izan da: zailtasun ekonomikoak, legezkoak, hizkuntzazkoak, etc. Ekonomia aldetik izan dituzte burukominik handienak gurasoek, “escuela de peaje” edo eskola pribatu bezala funtzionatu bait dute, Estatuaren inolako laguntzarik gabe; Euskal Herriak bere buruari ezarri dion inpuesto bezalako batez atera dira aurrera. Lege aldetik izandako trabak ere milaka konta litezke, 1969-1970 arte

Administrazioak ez bait ditu ezagutu eta onartu nahi izan. Hizkuntza —eta Irakasle-problemak ere ez ziren— (eta ez dira) txantxetakoak: euskara kultur-tresna izateko prestatu gabe, hizkuntza standard bat sortzeko alde batetik, eta bestetik irakasle eskolarik ez, titulurik ez, eta abar.

Gaur egun ikastola pisu handiko errealitatea da. Baina euskal irakaskintzaren arazoak konpontzeko ez da aski. Gure ikastoletako 45.000 horiek Euskal Herriko eskola-haurren hamarretik bat bakarrik bait dira. Eskolaurreko eta EGB mailatako % 40 ikasle dabil bestelako zentro pribatuetan, eta are gehiago (% 53,4) ikastetxe ofizialetan. Noiz eta zenbat irakatsi izan da euskaraz ikastetxe hauetan? Erlijio-soen bilkura honetan, gainera, galdera hau larriago bilakatzen da, kontutan eduki behar bait dugu Euskadiko 377 ikastetxe pribatu horietatik gehienak kongregazio erlijiosoen eskutan daudela.

### **Euskalduntzen-Alfabetatzen**

Euskal alfabetatzearen mogimendua 1966an hasten da, “Jarrai” taldeak Euskaltzaindiari aurkezturiko eskariarekin. Hasierako bultzada eta martxa Rikardo Arregik eman zion, 1969an hil zen arte. Lehen urte haietan militante koadroetaz baliatu ziren antolatzaileak, baitipat Herri Gaztedikoetaz eta Gizarte Eskolakoetaz.

**Euskalduntzen** metodoa geroago sortu zen, Santutxoko esperientziari esker, **Alfabetatzen** euskara mintzatua zekite-nentzako antolatzen da, eta **Euskalduntzen** erdaldunentzat.

Antolakizun aldetik, Euskaltzaindiak babesten du mogimendu bikoitz hau. Hego Euskal Herrian behintzat probintzien arabera eratzen da. Inoiz izen ezberdinik ere hartzen du: Gipuzkoan, esaterako, **Gau Eskolen Elkartea**.

Ikasurtean zehar herri eta auzo mailan iluntzetan eman ohi dira eskolak. Uda partean, berriz, leku aukeratu batzutan kurtso intentsibo gisa antolatzen dira eskola-emateak.

1976-1977 ikasurtean jende larriaren irakaskintza lanetan 2.000 irakasle zebiltzen. Eta 40.000 ikasle kontabilizatu ziren, honela banatuak: Bizkaian eta Gipuzkoan 15.000 bakoitzean, 5.000 Nafarroan, 4.000 Araban eta 350 bakarrik Ipar Euskal Herrian.

Egoera berri baten aurrean aurkitzen gara orain. Erakunde hauek kultur politika premia begien bistan jarri digute. Bi direkzioetan jarri ere: bateko, ahaleginik eta borondaterik handienaz ere holako erakunde batek, laguntza ofizialik gabè, ezin du bere eginkizuna bete; eta besteko, Euskal Herria euskaldundu nahi bada, kultur politika ausartago eta hedatuago bat beharko da.

### Kanta Berria

1961 jarri ohi da euskal kanta berriaren hasiera-urtetzat, urte horretan atera bait zen Michel Labegueriren lehen diska. Gutxi barru sortu ziren Hego aldean berri batzu: Lourdes Iriondo eta Mikel Laboa lehenengoen artean. Kantarien multzoak gorputz piska bat hartu zuenean "Ez dok amairu" taldean bildu ziren. Talde honen garrantzia eta eragina biziki handia izan da, jaialdiak eratzeko eta ulertzeko modu berri batzu inposatu bait zituen.

Kantarietara begira bi multzotan bana genitzake kantariok: talde batean "Ez dok amairu"ko partaide izanak eta "historiko" deituak; bigarrean taldean 1974-1975 inguruan sorturiko olatu berrikoak.

Euskal Kanta Berri honek 300 diska inguru eman ditu, LP eta singleren artean. Ez du lortu, oster, diskaetxe handi autonomo bat sortzea. Diskaetxerik egon badago (edo egon da): Cinsa 1965ean sortua, Herri Gogoia 1968an gero Edig-saren lotua, eta 1976an Artezi.

Euskal kantagintza ataka batetan aurkitzen da egun. Duela urte pare bat ezkerreko jaialdien krisia ezin handiagoa da. Jaialdi gutxi ospatzen da orain. Saturazioa dirudi. Garai bateko jaialdi ugari haiek funtzio bikoitz bat betetzen zuten: kantua-

rena eta politikarena: Mitin-jitea somatzen zen. Kantagintza modernoaren krisia ez dator kantaren funtziotik bakarrik, baizik eta kantaren egikeratik ere. Hau da, kantaren barne-orekan hitzak izan du muntarik handiena luzaroan, doinuaren kaltetan. Gaur kantariak askoz gehiago landu nahi du doinua, musika. Bestalde, kanta askok eta askok elkarren antz gehiegi zuen: kanta-mota bat bakarra egin ohi zen, protesta kantua. Estilo, mezu, joera ezberdinduagoen premia nabari zen, eta horretara emana dago gaur kantari asko.

### **UEU: Udako Euskal Unibertsitatea**

UEU 1973an sortu zen Baionako kultur asteen ondorioz, eta 1973 eta 1974 urteetan Donibane Lohitzunen eta 1975 eta 1976an Landagoiienen ospatu ondoren, 1977tik gerora Iruñean eratu izan da.

Udako Unibertsitate hau negukoaren gabeziagatik sortu da, hainbat minoritan bezala. Baina Unibertsitate sinboliko baino gehiago da. Hasieran, euskal kulturaz arduraturik zebilen jendea elkarrekin biltzeko eta harremanetan jartzeko aukera paregabea zela eta, biltzen zen 12-20 egunez jendea. Emeki emeki gorpuztuz eta egituratuz joan da, eta gaur egun sendoturik ikusten dugu. Dinamikarik ez zaio falta, gainera. Udako Unibertsitate honek neguan ere lanean bait dihardu. Horrela, Udako Unibertsitate aldi hura ez da lasaialdi bat, ez da lanaldi isolatu eta eten bat, baizik eta neurri on batean urte guztian eginikako lanean azalpena eta jarraipena.

### **EKT: Euskal Kultur Taldea**

Udako Unibertsitatea bezala, talde hauek ere 1973 inguruan jaiotzen dira, salbuespen batekin: Deustuko EKM (Euskal Kultur Mintegia), 1968an sortua. Talde hauek Unibertsitatearen eremuan sortu eta hor lanegiten dute. Unibertsitate barneko euskal kultur borrokaren ispilu dira. Hasiera hartan euskal ikastaroak sortzea zen hauen helburua. Gero, euskal giroa sortzeko hitzaldi eta jaialdiak antolatzeraz jo zuten. Hurrengo pausua, euskara Unibertsitatean irakastea



izan da. Eta azkena errebindikapena, karrerako gai batzu bederen euskaraz ematea, nahi duenarentzat.

### UZEI: Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea

1977an sortu zen UZEI, Jakin taldeak projektaturik eta finantziar etxe zenbaitek ekonomiazki sostengaturik. UZEIk bokazio publikoa dakar jaiotegunetik bertatik.

Suposamendu hauetatik abiatzen da UZEI: euskara instituzionaltzeko orduak jo du. Hizkuntzaren bizirako derriortzekoa da instituzionaltzea, eta gure kasuan urrats hori egin lezake gaur Euskal Herriak horixe eskatzen bait du euskal kulturaren azken urteotako ibilbideak. UZEIren bigarren presupostua da gaur dugun erdal Unibertsitatea ez dela gai behar dugun Euskal Unibertsitateari erantzuna emateko. Errelebo automatikorik ez da posible, herriko beharkizunei ez dielako behar bezala erantzuten. Hirugarren suposamendu bat ere badago, honelatsu adieraz genezakeena: botere politikoak nahita ere, **hic eta nunc** Euskal Unibertsitaterik ez da posible, UZEI edo UZEIren antzeko instituzio baten lanik gabe. Zergatik? Bestelako arrazoiak aparte, goi mailako irakaskintza egiteko giza-kuadroak falta zaizkigulako eta euskara bera taxuz prestatu gabe daukagulako.

UZEIren asmoa kultura idatzi euskaldun bat lortzea da, horretara behar diren tresna guztiekin. Euskara finkatu, fijatu, xehetu egin behar da. UZEIk unibertsital irakaskintzarako giza-kuadroak gaitu edo kapazitatu egin nahi ditu.

Helburu eta asmo horiek bete ahal izateko, hiztegi gintzara jo du UZEIk, kolpe batez hizkuntza eta jendea gaituz. Koordinaketa eta gidaritza lan hori profesionalki egiten da UZEIko bulegoetatik. 15 bat pertsona dago horretarako, baina batez ere 200 espezialistatik gora dago hauen inguruan UZEIrako lanean.

Eta honenbestez amaitu beharko dugu, denbora faltaz. Hurrengorako utzi beharko dugu euskal liburugintzaren eta kazetaritzaren berri ematea.